

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Vía Campesina erakundeak irabazi du Solidaritatearen aldeko XV. "Nafarroa" Nazioarteko Saria

Sarirako deialdia Nafarroako Gobernuak eta Laboral Kutxak egin dute, eta 15.000 euroko da

Ostirala, 2017.eko irailak 8

Vía Campesina, Elisabeth Mpfu koordinatzaileak ordezkaturik, da Solidaritatearen aldeko XV. "Nafarroa" Nazioarteko Sariaren irabazlea. Nafarroako Gobernuak eta Laboral Kutxak egin dute deialdia eta 15.000 eurokoa izan da. Gaur goizean jakinarazi dute Nafarroako Jauregian. Epaimahaiak bost finalisten artean aukeratu du, baina horren aurretik, giza eskubideen esparruan funtsean lan egiten duten Afrikako, Erdialdeko Amerikako eta Hego Amerikako pertsonak edo erakundeak egindako 15 proposamenen artean aukeratu dituzte bost horiek.



Elisabeth Mpfu.

Azken epaia eman duen Epaimahaiko burua Miguel Indurain Larraya izan da, eta sei batzarkide izan dira: Miguel Laparra Navarro (Nafarroako Gobernuko ordezkari gisa), Javier Cortajarena Goñi (Laboral Kutxako ordezkari gisa), Paloma Bescansa Miquel (Nafarroako Unibertsitate Publikoko irakaslea), M^a Victoria Vidaurre Garcés (AMEDNAko lehendakaria), M^a Jesús Castillejo Samitier (kazetaria) eta Javier Pagola Lorente (kazetaria). Idazkari gisa Andrés Carbonero Martínez arituko da (Nafarroako Gobernuko ordezkari gisa).

La Vía Campesina (CLV) erakundea 1993. urtean sortu zen, nazioarteko "bozeramaile" bat sortzeko nekazariarentzat, horrela, solaskide gisa ezartzea lortzeko eta ekoizle, nekazaritzako negozio eta lobbie handiek bereganatutako eremu publikoetan ezartzeko eta solaskide gisa aritzea lortzeko. Nekazari txikien interesen alde lan egiten duen nazioarteko mugimendurik handienetako bat da, eta zentzu horretan, solaskiderik handienetako bat gisa hartzen da.

Vía Campesina erakundearen lorpenen artean nabarmendu behar da Elikadura Subiranotasunaren kontzeptua sortu duela eta zeharkako kontzeptu bat bihurtzeko gai izan dela, herriek beren elikagai-sistemak

izateko eskubidea izan dezaten. Horrez gain, aldaketak egin ditu merkataritzari eta nekazaritzari buruzko eztabaida orokorretan, Genetikoki Aldatutako Organismoen eta Merkataritza Libreko Itunen kontrako borrokan LVCTik buru izanda: Elikadura Subiranotasuna merkataritza librearen, politika pribatizatzaileen eta jarduera estraktibisten benetako aukera da. Horrela, nekazarien ekoizpena politika orokorraren erdian kokatzen lagundu da, 2008ko elikagaien krisitik abiatuz.

Halaber, agenda politikoetan besteak beste lurrerako eta nekazaritza-erreformarako eskubideak giako gaiak arrakastaz ezartzea lortu da. 2006. urtean dagoeneko FAOren nazioarteko konferentzia bat egin zen, eta horren ondorioz, 2012. urtean elikagaien segurtasunari buruzko munduko batzordeak zuzentarauak negoziatu eta hartu zituen.

Nekazaritza ekologikoaren nekazari-eredua FAOK onartutako eta herrialde askotan hedatzen ari den aukera bat da. Orain arte, nazioarteko mailan Vía Campesina erakundearekin lotutako 40 tokiko eskola inguruk nekazaritza ekologikoaren ekoizpenari buruzko ikastaroak ematen dizkiete milaka nekazariari, eta horrez gain, beste nekazari-talde batzuk hezteko prestatzen dira.



Solidaritatearen aldeko XV. "Nafarroa" Sariaren epaimahaia.

Nekazarien eskubideak

LVCren ekimen bat da Nekazarien Eskubideen Deklarazioa, duela 15 urte baino gehiagotatik negoziatzen ari dena Nazio Batuen Giza Eskubideen Batzordeak har ditzan.

Erakundeko gaur egungo nazioarteko koordinatzailea, Elizabeth Mpfu, nekazaria eta ekintzailea da. Nekazarien familia batean jaio zen Buherako erkidegoan, Zimbabweco Manicaland probintzian, 1959ko abenduaren 30ean. "Emakume nekazariak" programako onuradunetako bat da, Zimbabweco lurra erreformatzeko programaren barruan. Lehen Hezkuntza bere sorterriko erkidegoan burutu zuen. Bigarren Hezkuntzan Zimbabweco Midlands probintzian egon zen, gaixotu eta bere sorterrira itzuli zen. Han, nekazaritzan hasi zen lanean. Geroago, ESAFF (Afrikako ekialdeko eta hegoaldeko nekazarien foroa) eta ZIMSOFF (Zimbabweco nekazari txikien foroa) foroetako sortzaileetako bat izan da. Azken horren lehendakaria ere bada.

Prozesu honetan LVCKekin harremanetan jarri zen eta LVCK lurraren, elikadura subiranotasunaren, giza eskubideen eta emakumeenganako indarkeriaren kontrako borroka gisa adierazten dituen balioetan islatu zen. LVCren Nazioarteko Idazkariordetza Operatiboaren egoitza hautetsia izan zen ZIMSOFF, 2013an Jakartan Nazioarteko VI. Konferentzian. Horrela, Elizabeth LVCren nazioarteko koordinatzailea da.

LVCren bidez, mundu mailako nekazariak nekazarien nekazaritza munduaren inguruko herrietan sustatzeko eta ekoizle txikiei laguntzen dieten politikak garatzeko lan egiten du (Estatu, eskualde eta nazioarteko mailan); lurra bereganatzeko ekintzei eta politikei aurre egitea, eta lurren politikan hobekuntza baten aldeko borroketan erakundeei laguntzea, baita Genetikoki Aldatutako Organismoei eta bizitzaren inguruko patentei aurre egitea, eta nekazarien eskubideak errespetatzen eta nekazarien haziak babesten dituzten haziei buruzko legediak ezartzeko lan egitea ere. Bestalde, Nekazarien eskubideen Deklarazioa hartzeko eta nekazarien eskubideen urratzeen kontrako erantzunak eta neurriak hobetzeko ere lan egiten dute. Hauek dira beste helburuetako batzuk: klima hondatzeko politikei aurre egitea, nekazarien nekazaritzako ekologia sustatuz, planetaren hozterako irtenbidearen zati gisa, edo nekazarien mugimendua indartzea beste mugimenduekin bat eginez, emakumeei eta gazteei entzunez.

LVCren mugimenduaren estrategiak eta jarrerak definitzeko eztabaidak eskualdeetan eta nazioartean garatzen dira, kontsulta-prozesuen bidez eta proposamenen hizkuntz anitzeko trukeen bidez. Erabakiak eskualde mailako erakunde kideen ordezkariak eta nazioarteko ordezkariak ados jarrita hartzen dira. Lau urtez behin nazioarteko konferentzia bat dago, eta hor, erabaki garrantzitsuenak hartzen dira. Horrez gain, Nazioarteko Koordinazio Batzordea hautatzen da (gizon bat eta emakume bat eskualdeko,

gehi kontinente bakoitzeko 1 gazte), mugimendua ordezkaten duena. Bestalde, Konferentzian hartutako erabakiak abian jartzeaz arduratzen da. Era berean, nazioarteko laguntza-talde batek batzorde horri laguntzen dio.

LVCK mugimenduaren gaikako lana koordinatzen duten nazioarteko 7 talderen bidez lan egiten du: Haziak-Nekazaritzako ekologia taldea; Lurra eta Lurraldea Taldea; Nekazarien Eskubideen Taldea; Migrazioen Taldea; Merkataritzako Taldea; Politika Publikoen Taldea; Klima Taldea.

Jarduerak modu deszentralizatuan antolatuta daude, erakunde nazional edo eskualde baten ardurapean. Emakumeen talde batek eta gazteen talde batek (bakoitzak bi ordezkari ditu eskualdeko) jarraipena egiten diote emakumeen eta gazteen agendari LVCn, eta barne hartzen ditu emakumeen eta gazteen berariazko kezka, baita emakumeak eta gazteak mugimenduan zeharka parte hartzea ere.

LVC lurrerako eta lurralderako eskubideak defendatzen dituzten nekazari-elkarteen gizarte-mugimendua da. Erakunde hauek eskualdeko eta nazioarteko ordezkariak dituzte mugimenduaren barruan, baina nagusiki nekazarien erkidegoetan errotuta daude, bizi diren landa-eremuetan eta nekazariak borrokatzen dute, bai gizonezkoek bai emakumezkoek.

Eskala txiki eta ertaineko 200 nekazari ordezkari ditu, lurrik gabeko pertsonak, emakume nekazariak, herri indigenak, migratzaileak eta landa-langileak. LVC mugimendu autonomoa, pluralista eta kultura anitzekoa da, nekazarien iritziak entzuteko eta nekazarien nekazaritza defendatzeko sortutakoa, korporazio handiek sortutako sistemari eta nekazari txikiei kalte egiten dieten merkataritza libreko akordioei aurre egiteko.

Vía Campesina erakunde nazionalen mugimendu bat da. Kide diren erakundeak subiranoak dira erabakietan, estrategietan eta ekintzetan. Gaur egun mundu mailako 9 eskualdetan antolatuta dago, nazioarteko jardueretan parte hartzeko eta agertoki desberdinetan eta borroketan elkarri laguntzeko: Afrikako Hegoaldea eta Ekialdea; Erdialdeko eta Mendebaldeko Afrika; Europa ("ECVC" ingelesez); Ipar Amerika; Hego Amerika; Erdialdeko Amerika eta Karibea (Soroko Erakundeen Latinoamerikako Koordinakundearen barruan (CLOC); Asiako Hegoaldea; Hego-ekialdea eta Ekialdea. Horrez gain, erakunde berriak sartzten ari dira Palestinan, Tunisian eta Marokon, Ekialde Hurbilean eta Afrikako Iparraldean eskualde berria sortzeko.

Vía Campesina erakundearen funtsezkoa da emakumeek parte hartzea. Hain zuzen, Elizabeth, zenbait zapalketa jasaten dituzten milioika nekazarien ordezkaria da: nekazari txikiak izateagatik, beltzak izateagatik, afrikarrak izateagatik, emakumeak izateagatik.

LVCK emakumeen partaidetza osoa bermatzen du eremu guztietan, eta interesak bateratzea eta mugimenduaren estrategian bertan islatzea ziurtatzen du. Emakumeek bakarrik parte hartzen duten eremuak ere badaude. Nabarmentzekoa da "Emakumeen kontrako indarkeria gelditzea" kanpaina, erakunde osoak parte hartzen duelako.

Horrez gain, barneko aniztasuna aitortzen da, eta hori dela eta, "Portaera errespetutsu baterako gida" bat argitaratu da. Hori, nazioarteko ekitaldietan parte hartu aurretik sozializatzen eta azaltzen da. Portaera desegokirik egongo balitz erabiliko litzateke.

LVC hizkuntza anitzeko erakundea da, eta interprete boluntarioak ditu. Ekitaldi berean 20 hizkuntzara itzultzen da, beraz, ordezkari guztiek parte har dezakete.